

On line eta off line mundua bateratzearen alde ari da

EROSKI AURRERA DOA APUSTU MULTIKANALAREN BIDEAN, ON LINE ZERBITZUA ETA BILKETA GUNEA HEDATUTA

- **EROSKI da elikagaien banatzaile bakarra on line erosketara zerbitzua duena Balear Uharte guztietan; izan ere, zerbitzua martxan jarri du Formenteran**
- **EROSKIren on line supermerkatu zerbitzua eskura dago, orobat, Valentziako Komunitatean; han, Turiako hiriburuaren metropolialde guztia hartzen du bere osoan**
- **EAEen eta Nafarroan, EROSKIren Bezero Bazkideen %60k dagoeneko badute, etxetik 15 minutura baino gutxiagora, doako gunea bat, elikagaien on line erosketak hartzera joateko**

Elorrio, 2016ko ekainaren 20a.- [EROSKI](#) aurrera doa arlo multikanalaren aldeko apustuan, on line erosketara zerbitzua hedatuta eta eskariak jasotzera joateko guneak ugarituta. *"Negozio tradizionala eta digitala uztartzearen alde dihardugu; horrela, on line zein off line munduan bietan ibiltzen denak inolako akatsik gabe egingo ditu erosketak, bere beharretara egokituta"*, esan du EROSKIren merkataritza elektronikoko zuzendariak Mari Mar Escrigek.

EROSKIk orain dela gutxi zabaldu du on line supermerkatuaren zerbitzua Formenteran, eta, hala, banatzaile bakarra da Balear Uharte osoan (Mallorca, Menorca, Ibiza eta Formentera) zerbitzu hori ematen duena. Eskaerak etxera nahiz portuetako amarralekuetan zerbitzatzeko dira. Supermerkatuak, EROSKIko denda fisikoak bezala, tokiko janari eskaintza zabal bat dakar. Gainera, nazioarteko janari mota asko ditu Balear Uharteko bisitariengan eta atzerritarrengan pentsatuta.

EROSKIren on line supermerkatu zerbitzua eskura dago, orobat, Valentziako Komunitatean; han, Turiako hiriburuaren metropolialde guztia hartzen du bere osoan. *"On line eskariaren zerbitzua pixkanaka hedatuko da Valentziako Erkidegoan. EROSKIren on line supermerkatua probatu duten lehenengoetako bezero valentziarrak, egindako testetan, bi alderdi nabarmendu dituzte, gure freskoen kalitatea eta aukera askatasuna, izan ere ekoizle liderretako marka sail*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)

handiak eta Valentzian bertan ekoizitako produktuak baititugu", esan du Mari Mar Escrigek.

EROSKIek Zurekin denda handietako sorta zabala ipini du on line superrean; horrela, bezeroari aukera ematen dio urdaitegian moztutako produktuak nahiz arrandegikoak, fruitategikoak eta harategikoak eskatzeko. EROSKIren edozein denda fisikotan bezala, janari freskoak dira ardatza, funtsezkoak baitira bizimodu osasungarria egiteko. *"Espainiako EROSKI on line supermerkatuaren bezeroen %75ek freskoak erosten ditu Internetez; nabarmentzeko moduko kopurua da hori sektorerako, eta erakusten du konfiantza duela EROSKIren freskoen kalitatean",* esan du kooperatibaren merkataritza elektronikoko zuzendariak.

Super bat gaur egungo kontsumitzailearentzat

Bezeroak supermerkatu sartzu nahi badute, sar daitezke webgunetik nahiz EROSKI Super aplikaziotik; aplikazio hori doan deskarga daiteke bai Google Playn bai App Storen. Aplikazio horren bitartez, erabiltzaileak asteko erosketa sakelakotik egiteko modua izango du, edonoz eta edonon, hamabost minutuan baino gutxiagoan. Gainera, ontzien barra kodea sakelakoarekin eskaneatuta erosteko modua ere ematen du aplikazioak.

EROSKIren *on line* superrak astelehenetik larunbatera ematen du zerbitzua. Erosketa egun batetik bestera egin daiteke, eta hiru aste lehenagotik ere eros daiteke.

EROSKI on linek segurtasun osoa ematen dio transakzioetan erabiltzaileari, konfidentzialtasun ziurtagiri ofizialak bermatuta. Era berean, bezeroaren datu pertsonalak era seguruan transmitituko direla eta konfidentzialtasun osoz erabiliko direla bermatzen du.

Drive eta Collect bilketa zerbitzuaren hedapena

Egunotan, *Click & Drive* eta *Click & Collect* zerbitzuak zabaldu ditu kooperatibak Araban eta Nafarroan. Horrela, EAEn eta Nafarroan, EROSKIren Bezero Bazkideen %60k bilketa gune bat edukiko dute etxetik 15 minutura baino gutxiagora. *"Kontsumitzaileek bereziki balioesten dute eskaerak egin eta egun berean jasotzeko aukera izatea, zerbitzua doakoa izatea eta, gainera, janari freskoa erosteko orduan EROSKI markak ematen duen konfiantza edukitzea",* azaldu du Mari Mar Escrigek.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)

Click & Drive eta *Click & Collect* zerbitzuek aukera ematen diote kontsumitzaileari eskaera edonoiz eta edonon egiteko, hala nola ordenagailutik, tabletatik edo sakelakotik, eta egunean bertan jasotzea ibilgailuarekin joanda (*Drive*) edo etxera bidean jasotzea (*Collect*). *"Zerbitzuaren erabiltzaileen %20 berriak dira kanal honetan. Gaur egun, erosketa biltzeko 25 puntu baino gehiago ditugu EAEn, Nafarroan, Galizian eta Katalunian. Uda aurretik, berriz, beste Collect gune bat jarri asmo dugu Galizian"*, esan du EROSKIren merkataritza elektronikoko arduradunak.

On line erabiltzaileak, sei milioi baino gehiago

EROSKI *on line* 15.000 erreferentzia baino gehiago eskaintzen dizkie sei milioi erabiltzaileari baino gehiagori, honako kategoria hauetan banatuta: elikagaiak, freskoak, edariak, higiena eta edertasuna, garbitasuna eta maskotak. *"Sorta zabala izateari lehentasuna ematen diogu. Horrela, kontsumitzaileak aukera askatasun handiagoa du; izan ere, berriz hasi da estimatzen berritasunak eta tokiko produktuak"*, aipatu du Mari Mar Escrigek.

EROSKI *on line* supermerkatua joan deneko hamazazpi urtean ari da zerbitzua ematen Espainiako hiri nagusietan —hala nola Madrilen etaartzelona— eta EAEn, Nafarroan, Errioxan, Kantabrian, Galizian, Balearretan, Tarragonan, Zaragozan, Huescan, Malagan, Guadalajaran, Toledon, Caceresen eta Ceutan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)